

“ZERUARI BEGIRA IZARRAK BAINO GEHIAGO IKUSTEN DIRA ZERUAN“

Virginia Garcia (Donostia, 1979) Astronomoa

Astronomia gustatu izan zaio betidanik. Aitona zeukan Astronomiaz hitz egiten ziona eta berarengandik datorkio zaletasuna. Aitonari esker, astronomoa da gaur egun.

Leire Sanchez, Olaia Garcia eta Nidal Akri (2024-01-15)



Ze ikasketa egin dituzu?

Berez ikasketaz astronomoa ez naiz, Kultur Teknikari ikasketak egin nituen, baina Astronomiarako zaletasuna betidanik izan dut, ikasketak bukatu eta zuzenean, planetarista lanean hasi nintzen Zientzia Museoan.

Ze hizkuntza jakin behar dituzu astronomo izateko?

Gaztelania eta Ingelesa behar dira astronomo izateko.

Non ikasi zenuen?

Peñaflorida institutuan ikasi nuen.

Zergatik gustatzen zaizu Astronomia?

Bazen Carl Sagan izeneko astronomo bat, orain dela gutxi hil zana eta, Carl Saganek esan zuen sagar tarta bat egiteko lehenengo unibertso bat sortu behar dela. Esaldi horrekin motibatu nintzen astronomo izateko.

Nolatan erabaki zenuen Aranzadin lanean hastea?

Ez dakit. Ikasketak bukatu nituen, Zientzia Museoan nintzela harremanetan hasi nintzen Aranzadirekin boluntario eta azkenean, museoa utzi eta Aranzadin ari naiz lanean.

Zer da Astronomia kontuetan gehien gustatzen zaizuna?

Egunaren arabera, egun batzuetan emozionatzen naiz gauza batekin, hurrengo egunean, beste zerbaitekin.

Zer da zeruan ikusi duzun gauzarik harrigarriena?

Behin oso gauza berezia gertatu zitzaidan. Gauean txakurra paseatzen ari nintzela, gora begira egoten naiz beti, eta egun hartan, gora begira nengoela, bolido bat ikusi nuen. Bolido bat izar handi bat da. Badaukat WhatsApp talde bat estatu osoko astronomoz osatua eta bolido bat ikusi nuela jarri nuen eta Toledon zegoen beste batek erantzun zidan: "Hartz handitik Kasiopera?" Batera ikusi genuen biok. Hori oso polita izan zen.